

Mondragon Unibertsitateak eta Eiken clusterrak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute

2011/05/16

Mondragon Unibertsitatearen izenean Nekane Arratibelek sinatu zuen, HUHEZIKo dekanoa, eta Eiken klusterraren ordezkari Itziar Menak, Eikeneko zuzendaria. Biek ala biek interes handia erakutsi zuten elkarlana areagotzeko bi erakundeen artean.



Lankidetzaren eremuak

Hitzarmenak hiru atal nagusi izango ditu:

1. **Elkarlana.** Beharrezko neurriak hartzea elkarlana bultzatzeko erakunde biei interesatzen zaizkien proiektuetan.
2. **EikenBANK.** Lankidetzan jardutea EikenBANK proiektuak arrakasta izan dezan. Horren bidez, clusterrak harremanetan jarriko ditu ikasle gazteak eta ikus-entzunezko sektoreko enpresak, lankidetzaren bidez produktu berri lehiakorak sor daitezkeen. HUHEZIK bere ikasleak bideratuko ditu proiektura eta bertako babesle eta eragile bihurtuko da.
3. **Azterketa bateratua.** Erakunde biek ikerketa proiektu bateratua egingo dute aztertzeko 2011n zein den ikus-entzunezko sektorearen egoera EAEn. Unibertsitatearen izenean, Idoia Astigarraga ikertzailea arduratuko da ikerketa dokumentalaz, marko teorikoa prestatzeaz eta sakoneko elkarrizketak egiteaz. Eiken, berriz, arduratuko da ikerketaren alde kuantitatiboaz.

Alde biek jarraipen batzorde bat sortuko dute hitzarmenaren jarraipena egiteko. Hitzarmena, gainera, indarrean egongo da sinatzaileek besterik erabaki arte.

